


# SL-Gi 2009

## Osinberde ibilbidea

3,4 Km / 1 h 10 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




### Profila
Perfil

Luzera | Longitud
3,4 km

Desnibela | Desnivel
+221 m / -12 m

### MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 2 | 1 h 10 min | www.mide.montanasegura.com |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke** | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena** | **Mandabideak** | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia** | (( 112 )) | |
| El medio no está exento de riesgos | Sendas o señalización que indica la continuidad | Marcha por caminos de herradura | **De 1 a 3 horas de marcha efectiva** | SOS DEIAK | |

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Aisia-lekua**
Area recreativa

## SL-Gi 2009
### Osinberde ibilbidea

Arkaka Uraren Interpretazio Zentro eta Arrantza Eskolatik abiatuta, Amundarainerrekaren ibilgurik bortitz eta ezezagunenera hurbilduko gara. Errekak harkaitza moldatuz landu duen arroila ikusten da asfaltozko bide erosotik. Erreka ondoko ertz guztietan nabari da leku honen aberastasun naturala, ibar-basoaren adierazgarri. Aurrera joan ahala, mendiartea estutu eta landaredia itxi egiten da Osinberde ur putzura heldu arte. Goza ezazu lekua, horretarako aukerakoa baita, eta ez ahaztu guztion ardura dela horrela mantentzea.

Arrancando desde el Centro de Interpretación del Agua y la escuela de pesca de Arkaka, nos acercaremos al curso más severo y desconocido del río Amundarainerreka. Desde el tramo asfaltado y sin dificultad de la senda se percibe el barranco que el río ha ido moldeado en la roca. La riqueza natural de este lugar, evidente ejemplo de bosque de ribera, se aprecia en cada rincón del río. A medida que avances el desfiladero se va estrechando y la vegetación se hace más tupida camino de la poza de Osinberde. Disfruta del lugar, es propicio para ello y no olvides que mantenerlo así es responsabilidad de todos.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



BORDA: Horrelako bordetan egiten zuten bizitza artzainek artaldeak goiko larreetan bazkan zebiltzan bitartean. Barruan hiru gela aurki daitezke: Sukaldea, logela eta gaztandegia. Horietaz gain borden inguruan ondorengo elementuak ere ageri ziren sarri: baratza, zakur tokia, zerritegia, oilategia, eskorta edo egurtegia. Ateetan egurrezko gurutzeak eta eguzki-loreak jartzen zituzten ekaitzak eta sorginkeriak urruntzeko.

BORDA: Los pastores vivían en bordas similares a esta cuando sus rebaños pastaban en los prados superiores. En el interior podemos encontrar 3 estancias: la cocina, el dormitorio y la quesería. Además de esos elementos comúnmente alrededor de las bordas se podían encontrar: una huerta, una perrera, una pocilga, un gallinero, un redil o una leñera. En las puertas se colocaban cruces de madera y carlinas para espantar a las tormentas y las brujas.

b



ANDURIO ZEHARRA: Bideak eskaintzen duen ikuspegi honetatik inguruari ematen zaion izen bereko mendia ikus daiteke, baita beste hainbat habitat mota ere: zelaiak, basoak, errekak. Eta, horiekin nahasirik, gizakiak sorturiko egiturak aurkitzen dira, hala nola, Arkakako borda edota Bikastillo baserria, besteak beste. Laburbilduz gune honetan oraindik mantentzen dira Gipuzkoako garai bateko paisaiak eta usadioak.

ENTORNO DE ENDURIO: Desde esta vista que ofrece el sendero se puede ver el monte del mismo nombre al que se le da a este entorno y, también, otros tipos de hábitats: prados, bosques, ríos. Mezclados con ellos, se encuentran las estructuras creadas por el hombre, como, por ejemplo, la borda de Arkaka o el caserío Bikastillo, entre otras. En resumen, en este paraje aún se conservan los paisajes y usos de una época anterior de Gipuzkoa.

c



BIDEA BASOAN ZEHAR: Gipuzkoako mendiak bide eta bidezidorrez beteak daude. Gehienak bertan emandako aktibitate ekonomiko desberdinetara egokituak daude (edo zeuden), izan hauek legezkoak ala legez kanpokoak: garraioa, artzantza, estraperloa edo tropen mugimenduak. Gaur egun, oinezkoek, gehien bat, erabiltzen dituzte modu honetako homologatutako bideak. Bide hauek basabide horiek diren ondarea mantentzen saiatzen dira.

CAMINO DEL BOSQUE: Los montes Gipuzkoanos están llenos de caminos y senderos. La mayoría de ellos están (o estaban) adaptados a las distintas actividades económicas a las que servían fueran estos legales o ilegales: transporte, pastoreo, contrabando o movimiento de tropas. Hoy en día, son los senderistas, en gran medida, los usuarios de este tipo de senderos homologados. Estos senderos tratan de mantener el patrimonio que son esos caminos.

d



OSINBERDE: “Osin” hitza “putzu”ren sinonimo bat da eta, “Berde” inguruan dagoen landaretzaren koloretik hartzen du. Aiestaran Erreka auzoko, Zaldibiako, ingurune lasai honetan dagoen iturburu hau, izen bereko errekaren emaile da. Era berean Osinberde errekak bere urak Oria ibaira isurtzen ditu Ordizia eta Arama artean. Leku paregabea da, mundu zibilizatuko zaratak atzean utzita, lasaitasunez eta bakardadean, naturako soinuez gozatzeko.

OSINBERDE: “Osin” significa pozo en euskara y “Berde” lo recibe del color de la vegetación que lo rodea. Esta surgencia situada en una zona tranquila del barrio Aiestaran Erreka, en Zaldibia, es deudor del riachuelo del mismo nombre. Al mismo tiempo el riachuelo Osinberde vierte sus aguas en el río Oria entre Ordizia y Arama. Es un lugar privilegiado, para dejando atrás los ruidos del mundo civilizado disfrutar, con tranquilidad y en soledad, de los sonidos de la naturaleza.


arazi ideiak borobiltzen

ATAUNGO UDALA
ZALDIBIAKO UDALA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Mendizale Federazioa